

DFERIA 2020KO KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK

Donostia Kulturak dFERIA 2020 edizioko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren oinarriak honako hauek dira:

- 1- Partaidetza librea da eta partikularrek zein enpresek har dezakete parte.
- 2- Parte-hartzaileak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu.
- 3- Lanek argitaratu gabeak eta originalak izan beharko dute, edozein modalitate artistikotan eginak, argazkiak, marrazkiak eta abar (*).
- 4- Zirriborroak euskarri informatikoan (JPG formatuan, 72 ppp bereizmenarekin eta 62 x 88 cm proportzioarekin) aurkeztuko dira.
- 5- "Donostiako Udalean eta haren menpeko erakundeetan gizonak eta emakumeak berdinak izateko zeharreko ekintzak ezartzeko jarraibideetako" 1.2. atalaren arabera, erabilitako irudiek generoen ordezkartza orekaturako joera izan beharko dute, rol eta estereotipo tradizionalak bultzatu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu aukeraketari lotutako diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.
- 6- Gaia: Aurkeztutako zirriborroek 2020ko edizioko gaia irudikatu beharko dute: **PASIOA**. Hala ere, Donostia Kulturak aintzat hartuko du kartelak batez ere jaialdiaren irudiari lotuta egotea, edizioko gaiari baino gehiago.
- 7- Elebiduna (euskara / gaztelania).
- 8- Proposamenak dFERIAko webgunearen bitartez bidaliko dira: www.dferia.eus
- 9- Kartel irabazlea 2019ko udazkenean emango da ezagutzera.
- 10- Karteletan honako hau idatzi beharko da:

dFERIA 2020
"Pasioa / La pasión"
Martxoa 9-12 Marzo (**)
Donostia / San Sebastián

11- Kartelak Dferiaren logoa eta Donostia Kulturarena eduki beharko ditu, baita erakunde babesleenak ere. Logotipo horiek erabiltzeko irizpideak DKren [irudi korporatiboaren eskuliburuan \(92-95 orrialdeetan\)](#) daude.

12- Donostia Kulturak egokia iruditzen zaion erabilera emango dio aukeratutako irudiari, eta berari lotuta dagoen ekitaldiak nahi duen formatu eta euskarritan erreproduzitu eta erabili ahal izango du.

SARIAK

- 13- Irudi irabazleari 1.200 € (zergak barne) emango zaizkio.
- 14- Zirriborroak aurkezteko azken eguna: **2019ko uztailaren 12a**, 14:00etan.

15- Lehiaketa hutsik geratu liteke.

16- Irudi irabazlea: Kartela inprimatzeko orduan beharrezkoa balitz kolore tonalitateak aldatzea edota datak eta ortografia akatsak zuzentzea, Batzorde Artistikoak, egilearekin adostu ondoren, beharrezko zuzenketak egiteko eskubidea izango du.

BATZORDE ARTISTIKOA

Donostia Kulturako Zuzendaritzak izendatuko du eta bost (5) kidek osatuko dute: kultur, arte, diseinu eta komunikazio munduarekin zerikusia duten hiru (3) kide, Donostia Kulturako Arte Eszenikoen ordezkari bat (1) eta Donostia Kulturako Komunikazio ordezkari bat (1).

17- Batzorde Artistikoaren eskumenak

Batzorde Artistikoaren esku egongo da lehiaketako oinarriak betetzen direla bermatzea eta prozesu osoan gerta litezkeen edonolako auziak eta arazoak konpontzea.

Nolanahi ere, Komisioak eskubidea izango du edozein unetan lehiaketatik kanporatzeko honako lan hauek:

- a).- Deialdiaren helburuarekin bat ez datozenak.
- b).- Beharrezko neurriak eta testua ez dituztenak.
- c).- Askatasun eta berdintasun printzipioen aurkakoak.
- d).- Pertsonen eskubideen eta duintasunaren aurkakoak.
- e).- Beste autore baten lanaren plagio direnak.

(*) Orain arte aukeratutako kartelak eskuragai daude webgunean, aurreko edizioen atalean.

(**) Datak alda litezke.

(***) Kasu guztietan kontuan izan behar da, aipaturiko inskripzioez gain, kartelak ekitaldiaren beste hainbat babesleren logotipoak eraman ditzakeela (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza, INAEM eta COFAE).